eman ta zabal zazu

25 URTE

KANPO MERKATARITZA 3. EAZL

Lerro Kurrikularra: *MERKATAL ZUZENDARITZA*

AZTERKETARI BURUZKO OHARRAK:

- **Azterketak bi atal ditu: testa eta galdera laburrak.**
- **Bi atalak erantzun behar dira.**
- **Lehen atalak (testa) 35 minutu irauten ditu.**
- **Erantzun zuzen bakarra dago.**
- **Penalizazioa 0,25 puntukoa da galdera bakoitzeko**
- **Bigarren atala (galderak) erantzuteko 30 minutu utziko dira.**
- **Bigarren atalean hiru galderetatik bi aukeratu behar dira.**
- **Bi atalekin batezbestekoa egiteko 4/10 atera behar da gutxienez atal bakoitzean.**

CANPO MERKATARITZA, 3. EAZL, L.K. MERKATAL ZUZENDARITZA.
2006/06/15 **Mota 1.**

1) Adieraz ezazu honako incotermen artean zein erabili ahal diren edozein garraio bidearekin.

a) DAF, DDU, CFR.
b) FCA, DEQ, DDP.
c) CPT, EXW, DAF.
d) DDU, FOB, CIP.

2) Esan honako esaldien artean zein den ZUZENA:

a) Batasun ekonomiko eta monetarioaren ondorio bat transakzio kostuen hazkundea da.
b) Europar Batasuna Erromako Itunaren ondorioz sortu egin zen.
c) Aduana batasun bat sortzerakoan, merkataritzaren sorkuntza aduana batasunaren tamainaren eta osatzen duen herrialdeen egitura produktiboen menpe egongo litzateke, beste faktore batzuen artean.
d) Aurreko guztiak okerrak dira

3) Aurreko adierazpenen artean OKERRA seinalatu:

a) TARICean salgai bakoitzaren aduana arautegia azaltzen da.
b) Orokortutako Lehentasunen Sistemak ez du manufakturen merkataritza kontuan hartzen.
c) EUR 1 agiriak jatorria ziurtatzen du, baina herrialde esportatzaileen autoritateek jaulki behar dute.
d) Incoterm bat erabiltzeko orduan argitalpen urtea zehaztu behar da.

4) Aduana eta gordailu frankoek bertan gordetzen diren Europar Batasunekoak ez diren salgaiei honako hau baimentzen diete:

a) Ondasun horiek inportazio eskubideak ordaindu arren, horien murrizketa nabarmenaz gozatzea.
b) Berresportazio kasuan EB-eko esportazio eskubide eta BEZik ez dezatela ordaindu.
c) Ondasun horiek ez ditzatela inportazio eskubideak ordaindu nahiz eta EB-aren barnean egon.
d) Inportazioari aplikagarria den BEZaren murrizketa, jasotzailea erregimen berezian dagoen pertsona bada.

5) Adieraz ezazu zein den adierazpen ZUZENA:

a) Inportatzaileak salgaiak derrigorrez gordailu franko batean gorde behar ditu, inportazioen despatxua egin ondoren.
b) Inportaziorako BEZaren sortzapena, arantzelaren sortzapenarekin batera ematen da.
c) Inportaziorako BEZaren zerga oinarriak aduanan salgaiak duen baloreari ez dio arantzela gehitu behar.
d) Aduana Eremu Bateratuko jatorria duten salgaiei ez zaie BEZa zergapetzen.

6) Esan ondoko baieztapenen artean zein da ZUZENA:

a) OMCren barnean erabakiak bozketen ondorioz hartzen dira, 3/5 gehiengoa behar delarik.
b) Merkataritzaren liberalizazioa, helburu desiragarria izan daiteke edozein baldintza edo egoeratan.
c) Arantzelaren ezarpenaren ondorioz, kontsumitzaileak kaltetuak ateratzen dira.
d) b) eta c) okerrak dira.

7) Adieraz honako baieztapenen artean zein den OKERRA:

a) Truke erlazio erreala herrialde baten eskaria bestearen eskaintzarekin berdinduko duen prezio erlazioa izango da.
b) Hecksher eta Ohlinen azalpenaren arabera, herrialde bakoitza espezializatu behar da berez herrialdean ugaria den produkzio faktorean intentsiboak diren salgaietan.
c) Arantzel baten ezarpenaren ondorioetariko bat bertako produktoreen sarreren murrizketa izango litzateke
d) Industria jaioberriaren argudioa, abantaila konparagarriaren aplikazio unibertsalaren aurka joango litzateke

8) David Ricardok aurkitu zuen:

a) Herrialde batek salgai bat esporta diezaiokeela bera baino era eraginkorragoan salgai bera ekoizten duen herrialde bati.
b) Abantaila konparagarriak sektore publikoaren laguntzarekin lortu behar direla.
c) Herrialdeek sektore industrial berbereko salgaiak trukatzen dituztela.
d) Nazioarteko merkataritzaren sorkuntzaren arrazoiak produkzio faktoreen ugaritasunean oinarrituta daudela.

9) EUR1 agiria:

a) Inportazioen balorea 4507,59 € (750.000 pezeta) baino gutxiagokoa denean betetzen da.
b) Bakarrik Orokortutako Lehentasunen erregimen pean dauden herrialdeek erabiltzen dute.
c) Zerga-oinarriaren finkatzea du funtzio nagusiena
d) Jatorriko herrialdearen administrazioek jaulkitzen dute.

10) Hobekuntza aktiboaren erregimenaren pean inportatutako salgaiak:

a) Normalean, konponketak jasan behar duten ekipo ondasunak izaten dira.
b) Eraldaketak jasan ondoren, emandako baimenean azaldutako epean berresportatuak izan behar dira.
c) Erregimen honen pean, salgaiak ez dira inoiz AEBera inportatzen; hemendik esportatzen dira kanpoan eraldatuak izateko
d) Aurrekoetatik bat ere ez.

11) Filfosa enpresa oriotarrak Indonesiara (OLS) eskaera bat egin du, CIF Yakarta baldintzetan. Indonesiako enpresak fakturatutakoak 100.000 euro suposatzen ditu. Salerositako salgaiak Indonesian eraldatuak izan dira, printzipioz beraien jatorria Papua- Ginea (ACP) berria zelarik. Jatorriari buruzko ziurtagiri guztiak zuzenak dira. Eraldaketa horren ondorioz salgaiaren kodea 8520100000 izatetik 8535000000 izatera pasa zen. Eraldaketaren balorea 20.000 eurokoa izan da. Garraioaren kostua 10.000 eurokoa litzateke. Salgai horri dagozkion eskubide arantzelarioak honako hauek dira:

	Konbentzionala	OLS	ACP
8520100000	%2,2	%2	%0
8535000000	%3	%1,5	%0

Zein da ZUZENA?

a) Eskubide totalak (BEZa barne) 17.740 €koak dira
b) Eskubide totalak (BEZa barne) 16.522 €koak dira
c) Arantzelei dagozkion eskubide ordainketak 2.000 €koak dira
d) Arantzelei dagozkion eskubide ordainketak 3.000 €koak dira

12) Esan zein azpibalantzan kokatu beharko genituzke atzerritarrenak diren etxebizitzen alokatzeagatik egindako ordainketak:

a) Zerbitzu balantza
b) Transferentzia balantza
c) Errenta balantza
d.) Kapital eta finantza kontua

13) "Sektore barneko merkataritza edo "merkataritza intraindustriala" deritzan prozesua honetan datza:

a) Herrialdeak adar industrial zehatz baten produkzioan espezializatzen dira.
b) Enpresek bitarteko salgaien kantitate hazkor bat trukatzen dute.
c) Nazioarteko merkataritzaren portzentaia geroz eta handiago bat enpresen barneko merkataritzari dagokio.
d) Adar industrialen produkzioa herrialde ezberdinetan kokatzen da, inon espezializazio esklusiborik gabe.

14) Herrialde baten inportazioek 1000eko balorea badute, esportazioek 3000koa eta BPGa 6000, herrialde horren Estalpen tasa eta Kanpo Irekiera Koefizienteak epe horretan honako baloreak dituzte:

a) ET= %33 eta KIK= %66
b) ET= %33 eta KIK= %50
c) ET= %300 eta KIK= %66.
d) ET= %300 eta KIK= %50

$\frac{X}{M} \times 100$ $\frac{3000}{1000} \times 100$

15) Merkatal balantzan :

a) Ondasun eta zerbitzu guztien esportazio eta inportazio guztiak erregistratzen dira. Esportazioak sarreretan apuntatzen dira (ondasun edo zerbitzuen sarrera bat direlako) eta inportazioak irteeretan (ondasun edo zerbitzuen irteera bat direlako).
b) Herrialde baten merkatal trukeen balorea erregistratzen da, garraioa eta aseguruak barne.
c) Aseguruak eta garraioa ez dira merkatal balantzan erregistratzen.
d) Bakarrik kontuan hartzen dira salgaien balorea eta garraioa, jarraitzen den balorazioa sistema CIF delako.

6) Adieraz honako baieztapenen artean zein den ZUZENA:

a) Herrialde handien kasuan, arantzelaren ezarpenaren ondorioz truke erlazio errealak kalte bat jasaten du.
b) Nazioarteko merkataritza liberalizatzeko erabilitako argudioetariko bat zera da, prozesu horrek eragin baikorrak eduki ditzakeela herrialde txikien bereiztapen edo ezberdintze ekonomikoan.
c) Inportatutako salgaia ekoizten duen herrialdean hobekuntza teknologiko bat ematen baldin bada, herrialde inportatzaileko kontsumitzaileentzat onuragarriagoa da arantzelaren ezarpena kuota baten ezarpena baino.
d) MMEak gomendatzen du hesi ez arantzelarioen erabilpena merkatal politikarako tresna bezala.

17) Herrialde baten pagamendu balantzan kontu korronte eta kapital kontuen balantzen saldoen baturak defizita agertzen bada zera esan nahi du:

a) Herrialde horrek atzerritik mailegu neto bat jasotzen du.
b) Herrialde horrek atzerrira mailegu neto bat egiten du.
c) Herrialde horren dibisa erreserba maila hazi egingo da.
d) Herrialde horren dibisa erreserba maila jaitsi egingo da.

18) Salgaien balorea aduanetan finkatzeko modu nagusiena da:

a) Salerosketa balorea
b) Prozedura kentzailea
c) Salgai berdinen metodoa
d) Produkzio kostuaren metodoa

19) Salgaiak Bilbotik New Yorkera esportatuko ditugu eta arriskua eta gastuak jatorrian transmititu nahi ditugu, aireportuaren salgaientzako terminalean utzi ondoren. Zein da erabili beharreko incoterma:

a) FCA Bilbo
b) DDP New York
c) FOB Bilbo
d) CIF New York

20) Elkartearen barneko BEZaren erregimenak honako hau dio:

a) Zerga jatorrian zergapetzen da, helmuga salbu gelditzen delarik.
b) EBean egoiliarrak diren partikularrak BEZaren ordainketarengandik salbu gelditzen dira EBeko beste herrialdeetan.
c) EBean egoiliarrak ez diren partikularrak beti gelditzen dira BEZaren ordainketarengandik salbu EBean.
d) BEZa ez da agertzen elkarte barneko emateetan, salbu daudelako.

21) Kontingente arantzelarioen eta kuantitatiboaren arteko ezberdintasuna honako hau da:

a) Kuantitatiboak OLSko herrialdeei aplikatzen zaie eta arantzelarioak bestelakoei.
b) Kuantitatiboek inportatutako kantitateei muga bat ezartzen diete eta arantzelarioek inportatutako kantitate batentzako arantzel tasaren murrizketa bat suposatzen dute.
c) Kuantitatiboak merkatal politika autonomoaren tresna bat dira eta arantzelarioak politika konbentzionalarenak.
d) Aurrekoetatik bat ere ez.

22) Salgai batek (8510100000) Kolonbiako jatorria du:

a) Herrialde horretan eraldakuntza nahikoa izan baldin badu.
b) Kolonbian bere osotasunean produzitu denean.
c) Kolonbian ekoiztutan izan ondoren, muntaia Perun egin denean.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

23) EBean hegazkigintza sektoreak beharrezkoak dituen ekipo ondasunen inportazioei, zenbait baldintzen pean, sektore honen jarduera faboratzeko honako arantzel neurria aplikatzen zaie:

a) "Aduana frankizia"
b) "Helbide espezifikoa"
c) "Arantzel etenaldia"
d) "Aduana gordailua"

24) Argentinar dentista batek, bere jarduera profesionala Espainian era iragankorrean aurrera eraman aha izateko denboraldi baterako salgaien inportazioa egiten badu:

a) Bere materialak AEB barnean saldu ahal izango ditu, arantzelen ordainketarik egin gabe .
b) Denborazko esportazioak dira eta beraz, berrinportatzeko orduan erantsitako balorearen gain zergapetuko dira bakarrik.
c) Arantzelaren ordainketaren salbuespen osoa edukiko dute.
d) Gordailu frankoan egon beharko lirateke gutxienez 6 hilabetetako epe batean.

25) Filfosa enpresa oriotarrak Indonesiara (OLS) eskaera bat egin du, CIF Yakarta baldintzetan. Indonesiako enpresak fakturatutakoak 200.000 euro suposatzen ditu. Salerositako salgaiak Indonesian eraldatuak izan dira , printzipioz beraien jatorria Papua- Ginea (ACP) berria zelarik. Eraldaketa horren ondorioz salgaiaren kodea 8520100000 izatetik 8520100000 izatera pasa zen (ez da aldaketarik ematen). Garraioaren kostua 20.000 eurokoa litzateke. Salgai horri dagozkion eskubide arantzelarioak honako hauek dira:

	Konbentzionala	OLS	ACP
8520100000	%2,2	%1,5	%0

Zein da ZUZENA?

a) Aduana balorea 220.000 €koa da
b) Aurkeztu beharreko ziurtagiria EUR1 da
c) Garraio zuzenaren araua ez da betetzen
d) Jatorri bilateralaren metaketari buruzko araua aplika dakioke